

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

2990

EBAZPENA, 2021eko maiatzaren 3koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Txorierriko lineako Zamudio-Lezama tarteko trenbidea berritzeko eraikuntza-proiektua»k ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda.

2021eko apirilaren 22ko Ebazpenaren bidez, «Txorierriko lineako Zamudio-Lezama tarteko trenbidea berritzeko eraikuntza-proiektua» onetsi zen.

Zamudio-Lezama tartea Bilbao-Lezama lineari dagokio, eta haren amaiera da.

Berritu beharreko bide-zatia 11+082 K.P.tik (aurreko tartearen berrikuntzaren amaiera, Derio-Zamudio) 12+891 K.P.ra doa, Lezamako geltokiko linearen amaierari dagokiona.

Proiektuaren barruan sartzen dira trazadura eta haren definizioa geometrikoa gauzatzea eta hobetzea, drainatzeen egokitzapena, ezponden egoera egiaztatzea eta itxitura berriz jartzea, beharrezkoa den lekuetan osatuz.

Lursailak lortzeko eta ukitutako ondasun eta eskubideak kudeatzeko, proiektuak ondasun eta eskubide horien identifikazioa biltzen du. Horretarako, desjabetzeen eranskinean ageri dira lurzati-zen zerrenda eta planoak.

Organo honek eskumena du garraio-azpiegituren arloko jarduerak betearazteko beharrezkoak diren desjabetze-espeditentzaz izapidetzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2.c) artikulua xedatzen duenaren arabera.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, beste lursail batzuk erabili beharra dakarten trenbide-lineen proiektuak, horien tartekak edo tren-azpiegituren beste elementu batzuk eraikitzeke proiektuak edo lehendik zeuden azpiegiturek aldatzeko proiektuak onartzen direnean, onespenez berekin ekarriko du onura publikoaren edo gizarte-interesaren deklarazioa, lursail horiek okupatu beharra izatea eta okupazio hori premiazko-tzat deklaratzeko, ukitutako eta identifikatutako ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, proiektua onartzeak inplizituki berekin dakarren arren proiektuak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18. eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrean jarri behar dela ezartzen dute, nahi duenak alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izan ditzan, okerrak zuzentzeko eta interesdunak zeintzuk diren ondo zehazteko.

Hortaz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jendaurrean jartzea «Txorierriko lineako Zamudio-Lezama tarteko trenbidea berritzeko eraikuntza-proiektua»k ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda, ebazpen hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aur-

keztu ahal izan daitezen, okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea, 1 - Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Aipatutako epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Zamudioko eta Lezamako udaletxeetako iragarki-oholean ere erakutsiko da jendaurrean.

Honen berri ematen da, denak jakitun egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 3a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.

ERANSKINA

| Finka zenbakia | Katastroko erreferentzia eta udalerria | Jabea eta helbidea | Afektazio mota (m ²) | | | Izaera |
|----------------|--|---|----------------------------------|---------------------|-------------------------|----------|
| | | | Jabari osoa | Zortasun iraunkorra | Aldi baterako okupazioa | |
| 1 | 081004085 Zamudio | Zamudioko Udala Sabino Arana Goiri plaza, 1 48170 - Zamudio | | | 2479 | Landakoa |
| 2 | 905003180 Lezama | Lezamako Udala Aretxalde, 1 48196 - Lezama | | | 5119 | Landakoa |